

Euria non, uzta ona han

LEHORTEA. Uztak emaitza desberdinak utzi ditu Nafarroan: lehor-teak jotako lurraldeetan azken urteetako emaitza txarrenak izan dira; Iruñerrian, aldiz, uzta onak bildu dituzte

Ion Orzaiz | IRUÑEA


Aurtengo idortek alde handiak ekarri ditu Nafarroako soroetara, labore uztaren emaitzak zeharo irregularrak izan baitira. Hala, Erriberako uzta «penagarria» izan da, baina Iruñerriko egoera «nahiko ona» izan dela adierazi dute EHNE eta UAGN sindikatuek.

Ekainean Nafarroako Gobernuak kaleratutako txostenaren arabera, Iruñerriko edo Pirinio aldeko uztak «erregularrak» edo «onak» izan dira, lehorreko belarki laboreetan 5.000 bat kiloko uztak jaso baitira.

Egoera ez da berdina Erriberan eta Lizarraldeko zenbait tokitan, non labore bilketak emaitza txarrak eman dituen. Askotan (Erriberan bereziki) ezin izan da laborea bildu, makinak sartzeak uzta bera baino gehiago balio zuelako.

Fermin Irigarai EHNE sindikatuko idazkari nagusiaren esanetan, hiru alde nabari daitezke Nafarroan labore uztaren emaitzei begiratuta. «Alde batetik Iruñerria daukagu, bestetik Erdiko eremua eta azkenik Erribera».

Iruñerrian uzta ona izan da, Irigarairen ustez: «Ez da izan bikaina, udaren hasieran egondako beroaren eraginez labore gutxiago jaso baitute. Hala ere,



Erriberan uzta «penagarria» izan da; Iruñerrian, aldiz, urte ona izan dela adierazi dute EHNE eta UAGNk.

hektarea bakoitzeko 4.000 eta 5.000 kilogramoko uztak jaso dituzte, eta hori ongi dago».

Hala ere, Nafarroako beste aldeetan egoera guztiz ezberdina izan da, EHNEko idazkari nagusiaren esanetan. «Erdiko eremuko iparraldean, Erriberri eta Tafalla inguruan, 4.000 kg.

inguruko uzta arrunta egin dute».

«Eremu horretako hegoaldean, aldiz, Urantzian edo Lodosan adibidez, 1.500 bat kg. labore jaso dute, eta hori nahiko uzta txarra da. Azkenik, Erriberan, ereindako soroen %80tan ez da laborerik bildu,

makinak sartzea merezi ez zuelako. Jasotako soroetan, gainera, hektarea bakoitzeko 700 eta 1.000 kg. arteko uzta jaso da. Emaitza hori penagarria da», adierazi du Irigarai.

UAGN sindikatuko lehendakari Angel Eraulenzat ere, uztaldia oso desberdina izan da eremuen artean. «Erriberako milaka hektareatan laborea jaso gabe gelditu da, baina Iruñerrian uzta ona izan dela esan dezakegu. Urtea oso irregularra izan da, pisu espezifiko nahiko ona izan arren, idortek gauzak okertzen dituelako».

UAGNko lehendakaria «urdu» agertu da etorkizunarengatik. «Kezkaturik gaude, gure baratzetako produktuak aurrera ateratzeko izango ditugun aukerak urriak izango direlako, Ebroko urtegiaren dagoen ur gabezia dela eta».

Itoizko urtegia eta diru laguntzak

Izan ere, uharkak izan dira aurtengo idortea gehien nabaritu dutenak, eta arazo horri aurre egiteko, UAGNko lehendakariak presa gehiago eskatzen ditu. «Urik gabe ez dugu etorkizunik lehenengo sektorean. Nafarroan ez dago Itoiz soilik, eta Ega eta beste ibaien urak nolabait baliatu behar ditugu. Urtegi gehiago egin beharko liratekeela uste dut, urik gabe ez baitugu zer eginik».

EHNE sindikatuarentzat,

ONDORIOAK

Ebroko urtegiak, erdi hutsik

Ebroko arroan dauden urtegiak beren edukieraren %57raino soilik daude betetak, Ebroko Ur Konfederazioak aurkeztutako txostenaren arabera. Lehor-tea dela eta, Esa eta Allozko urtegiek azken urteetako maila apalenean daude. Esak bere edukieraren %30a dauka betea, 1998tik izaten ez zen marka. Baina Allotzen egoera oraindik larriagoa da, egun hauetan urtegiak %23a soilik baitu betea.

Eugiko presa da guztietatik egoera onenean dagoena, ia beteta baitago (%86), iaz baino %10 bat gehiago.

Ur erreserbari dagokionez, Ebroko arroko urtegiek 3.700 hektometro kubiko dituzte, edukiera guztiaren erdia baino pixka bat gehiago. Iaz, ur erreserba 4.500 bat hektometro kubikok osatzen zuten, %70ak.

ordea, konponbidea beste bat da. Irigarai adierazi duenez, «UAGNren planteamendua ez da serioa, eta dauden desberdintasunak areagotu egingo ditu. Idortea ez da zona batetara mugatzen den arazoa, eta azkenaldi honetan fenomeno hori Nafarroako beste eremu batzuetan ere jasan dute, normalean hezeak diren inguruetan alegia. Urarentzako azpiegitura gehiago eskatzeak ez du konponduko arazoa, ur hori, behar den tokietara helduta ere, pribilegiatu gutxi batzuen eskuetan egongo litzatekeelako».

Irigarai Itoizko urtegiaren helburuak eta erabilpenak «argi eta garbi» azal ditzan eskatu dio Administrazioari, eta EHNE sindikatuak proposatzen duen irtenbidearen berri eman du. «Europako Batzordeko Nekazaritza Politikako laguntzen ordainaren aurrerapena eskatzen dugu, europar araudiak neurri hori aurreikusten duelako».

Araudi honen bitartez, EBko kide diren estatuak nekazaritza politikako laguntzen %50a aurreratu dezakete. «Proposamen honek gizarte eta ekonomia oreka lortzeko apustua egiten du, eta Itoiz bezalako ekimenek planteamendu honen aurka ari dira, lurraldeen arteko desegonkortasuna lortzeko bakarrik balio dutelako», amaitu du Irigarai.

GRADUONDOKO TITULUAK HIZKUNTZA, INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAN

2. promozioa (2002-2004)

(Unibertsitate-espezialista eta Unibertsitate-masterra)

EHUko ILCLik eratua EUSKALDUNON EGUNKARIArekin lankidetzan

LAN PRAKTIKAK

EUSKALDUNON EGUNKARIAN egingo dira praktikak (7 kreditu urtero)

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA

Epea: 2002ko ekainaren 11tik irailaren 27ra
ILCLI. EHU, Villa Asunción,
Jose Elosegui Alkatearen hiribidea, 275, 20015 Donostia.
Internet: www.sc.ehu.es/ilcli



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ILCLI

Egunkaria

CB CANAL BIZKAIA Bizkaiko Telebista

ABUZTUA 18 IGANDEA

09:00	EERIE INDIANA
09:30	JAULA DE PILLOS: - Albert, el quinto mosquetero - Hattori El ninja - ¡Que viene el lobo! - Bots Master
12:00	KONTZERTUA: "Offsprings" (2ª Parte)
12:30	SERIE:DOCTORA QUINN "Llega el hombre de hielo"
13:30	UN MAR DE REGATAS III Trofeo S.A.R. D.Felipe de Borbón, Regata Cantabria Gran Reserva
14:00	BIZKAIA GAUR 1ª EDICIÓN
14:30	NOTICIAS LOCALIA
15:00	LOCAL DE CINE
15:30	ESPECIAL FIESTAS
16:00	CINE: "Gunsmoke 2: El pistolero Dodge"
17:45	ESPECIAL FIESTAS
18:05	CINE: "Las Pistolas no discuten"
19:30	MTV CANAL MUSICAL
20:00	ESPECIAL FIESTAS
20:30	BIZKAIA GAUR 2ª EDICIÓN
21:00	DOCUMENTAL BBC EXCLUSIVE: "La Guerra del Golfo"
22:00	CINE: "Stony, Sangre Caliente"
00:00	ESPECIAL FIESTAS
00:20	CINE: "La Novia Ensangrentada"
02:00	MTV CANAL MUSICAL
05:00	AGENDA CANAL BIZKAIA